

*Batzar
Nagusia*

BALANTZE

TXOSTENAK



1992

**EUZKO ALDERDI
JELTZALEAREN
ETORKIZUNERAKO IKUSPEGI
BERRIAK**

**(1992ko Urtarrilaren 11an eta 12an egindako Batzar
Nagusian onarturiko Txostena)**

AURKIBIDEA

	Orrialdea
AURKEZPENA	27
METODOLOGIA	31
1. EREMUA: Lehiatoki politikoa - 2000.a abiapuntu	32
2. EREMUA: Euzko Alderdi Jeltzalearen presentzia Euskal gizartean	38
3. EREMUA: Euzko Alderdi Jeltzalearen baitarantz	40
4. EREMUA: XXI. menderako proiektu abertzalea	45

AURKEZPENA

1992an Batzar Nagusia egiten denean, Euzko Alderdi Jeltzalea bere ehungarren urtearen atari-atarian aurkituko da Euskalerriko politika eta gizartearen lehian.

Alderdi politiko batek 100 urte iraute hutsa bada berez hausnarketarako nahikoa arrazoi *Euzko Alderdi Jeltzaleak bere sorburuaz eta urteetan zehar hainbat erregimen politiko eta gizarte-egitura berezien artean indarrez irauan* izanaren galdera bere buruari egin diezaion.

Argi ere argi dago, eragile zehatz jakinak alde batera utzirik, alderdi politiko batek erakunde legez bere ihardunbidea 100 urtetako bizitzaz abalatzek zer edo zer erakusten duena, 100 urte horietan –gutxi asko– zerbitu gogo duen herritargoaren eskabideei etengabe eta zuzenki erantzuten jakin duena, alegia.

Herritargoarekin bat egoteak Euzko Alderdi Jeltzalea murgilduta dagoen gizarte-arenganako atxekidura, aldagaitasun eta eraratze egokia dakar ondorik.

Era berean –diktadura edota askatasun demokratikoen murrizte garaietan–, Euzko Alderdi Jeltzalean ekinkide izan direnek eta badirenek jarkiera eta jazarpenarako gaitasuna erakutsi dute, ia egitsari urenen muga jotzeraino ere.

Iraumen hau ez da soilki Euzko Alderdi Jeltzalearen ekintzaileen jarkiera gaitasun hutsaren fruitu. Beste eragilerik ere bada: Alderdiaren analisi politikoetarako gaitasuna, pragmatismoa eta zindotasun ideologikoa.

Euzko Alderdi Jeltzalearen historia, mende luze batetako eta XX. gizaldiko egoera ideologiko eta politiko ekaiztsu eta nahastetsuan, egitsari urenez gain, barne urratze, zatiketa eta, jakina, kanpotiko “*divide et impera*” azpilan eta maltzurkeriaz betetako historia dugu.

Hiru krisiune latz izan dira historia korapilatsu honetan. Egia esan, Euzko Alderdi Jeltzaleak abaguneotan okerreko bidea hartu izan balu, mapa politikotik desagertu egingo zatekeen seguraski.

Lehenengo abagunea frankismoaren eskaintzekin sortu zen. Gure ekintzaileetarik askok eta burukide batzuk Elizaren Hierarkiak bedeinkatutako kolpe militarren aurrean zalantza handiak izan zituzten, batek edo bestek onetsi ere egin zuelarik; gainera, giro hartako ingurune sozio-politikoan, elizgizonenganako jazarkunde basatia eta elizen erretzea ia bete-betean katolikoez osatutako Alderdi baten argudio politiko legez aldarrikatu nahi izan zen. Horretaz aparte eta honen aurrean, alderdi barruko nahaspila eta istiluak ugariak izan ziren. Horra Luis Arana burukidearen eta Luis Gallastegi erradikalaren kasuak; hauek Euskalerrria utzi zuten *“espainiarren arteko gerra”* zela eta euskaldunok zer horretan zerikusirik ez genuelakoan. Euzkadi Buru Batzarrek idazki zorrotz batez bukatutzat eman zuen polemika: *“Estatu Espainolean garatzen ari diren gertakarien aurrean, eta Euzkadi eta bere etorkizunerako eragin zuzen eta mingarria izan dezaketela kontutan harturik, Euzko Alderdi Jeltzaleak –bere ideologiarik uko egin gabe eta jatorrizko pentsabidea zinez sendetsiz– honako adierazpen hau egiten du: bizi dugun gatazka hiritargo eta faxismoaren, Errepublika eta Monarkiaren arteko aurkaketatik gauzatzen denaz jabetuz eta bere betiko printzipioen arabera, Alderdia hiritargo eta Errepublikaren alde altxatzen da buru-belarri, bere askatasunetzko mendeetan zehar herriak ere berez izan zuen erregimen demokratiko eta errepublikarrarekin bat”*.

Beste tentaldi-abagune arriskutsu bat nazional-sozialisten eskaintzarena izan zen. Europa erdia faxismoaren menpean zegoen garaian, Frantzia ere osoan atzemana, eta Hitler-ek gerra irabazia zuela eta *“Mila urtean iraungo zuen Reich-a”* jada irasia zelakoan, agintari alemaniarren eskaintza zehatz eta eskuzabala heldu zitzaion Euzko Alderdi Jeltzaleari, baldintza haietan tentagarria ezezik, ez onestea zeharo erabaki ausart eta beldurgarria ematen zuelarik. Eskaintza hori, agintari frankisten ezkutuan, Burgoseko espetxera zuzendu zen, bertan bait zeuden beren erabakiz eta borondatez gartzela barruan jarraitu nahi izan zuten Euzkadi Buru Batzarreko burukideak. Hauxe izan zen lankidetzaren zitaloaren zitaloaren erantzuna: *“Horrelakorik egingo bagenu, Euzkadiko kaleetan arrastaka erabil gaitzen mereziko genuke”*.

Hirugarren tentaldia ideologiaren eremuan garaile atera zen faxismoaren aurkako eta aurrerapenaren aldeko komunismoarena izan zen; gerra ostean, etorkizunerako ideologia eta sistema nagusi legez aditu zuten komunismoa Europako intelektualek, frantsesek batipat, katolikoak ere barne zirela.

Gutariko batzuk, uste sendoz ezik zentzu praktikoaz, etorkizunaren jabe azaltzen zen agintekeriazko pentsamolde harekiko akordio moduren bat edo bultzatu zuten.

Dena den, tentaldi hori ere uxatu egin zen. Euzko Alderdi Jeltzaleak, Estatuan ezarritako botere frankistaren aurkako indarkeriazko jazarpen eta borrokan abiatzeko tentaldia ere jasan zuen, ETA erakunde armatuaren eraginez Alderdiko Euzko Gazte-diarengandik etorritako tentaldia hain justu ere.

Burukideak indarkeria erabiltzen zuten metodoen aurka jarri ziren argi eta garbi: *“Badakigu horretara nola sartzen den, inoiz ez baina nola ateratzen”*, eta jarrera honek burukideon orduko zuhurtasuna eta adimen argia erakusten du.

68ko Maiatzaren ondorik, partidu berriek marxismo-leninismoaren kuntza berengandu zuten, erabide abertzaleak zeharo erdeinatuz eta Euzko Alderdi Jeltzalea *“historiaren ganbarara”* betirako zokoratu nahi izaterainoko oilarkeria nabarmenez. Ehortzi egin gura izan zuten Euzko Alderdi Jeltzalea, hilotza izango bailitzan.

Urteak joan, urteak etorri, curak bihurtu ditu hilotz denborak. Aipatzekoa da, bestalde, demokraziaranzko iragapencan Euzko Alderdi Jeltzaleak Herria eratu eta bermatzen bete behar izan duen lan izugarria. Euzkadiren aurrerakuntza sozio-ekonomikoan arras erabakiorra izan da hortaz Alderdiaren emaria.

Euzko Alderdi Jeltzalearen iraumencan bada beste eragilerik ere: balore banaczin bezain hobegarri diren askatasun eta justiziarenganako atxekimena, Alderdiaren zentzu humanista, Euskalerrriaren burujabetzaren aldeko defentsa lehiatia eta, azkenez, abagune historiko bakoitzak bidematen duen neurrizko gurbiltasuna, unean uneko ahalbide errealak eta ideologiaren tinkotasuna ahal den neurrian bateratzen saiatuz.

Era berean, Euzko Alderdi Jeltzaleak burukideen printzipio sendotasunari zor dio Europa Batuaren eraikuntzaren aldeko atxekimena, eta hori egitasmo honen formulazioaren lehen-lehen gunetik, betiere Euskalerrriaren independentzia eta estatu propioa izateko helburuak egungo abagune historikoaren nahitaezko beharretara egokiturik.

Artekoa, ez da norbere burua gogobetetzeko eresia. Gure alderdikide eta buruki-de guztiei zuzendutako zuhurtzi-oharpena izan nahi du.

Gure Alderdia beti arduratu izan da izanaz, eta ez horrenbeste itxuraz. Hortaz, moda ideologikoez eta indar menderatzaile joankorrek ezin izan dute inondik ere suntsitu ez irentsi.

Beraz, kontuak jota, Alderdiak ez du zertan aldatu bere oinarriko ideologia eta norabide politikoa, nahiz eta unean uneko egoera sozio-politikoetara zuzenki moldatzea ezinbestekoa den.

Bihoakie, bada, lerro hauetatik gure eskerron eta omenaldi apala curon lan, ekimen, buruhaute eta ihardunbide egokiaz XXI. gizaldiaren atari-atarian Euzko Alderdi Jeltzalea Euskalerrri osoaren zerbitzutan dagoen formazio politiko sustraitu, sendo eta zindoa izatea posible egin duten *“alderdikide”* guztiei.

Euzko Alderdi Jeltzaleak badu begien aurrean erronka handi eta lehiatsua: gure Herriaren nahi eta esperantzak errealtatearen arabera bideratzekoa, indarkeriaren iturri den mingostasun eta ezinak eragindako gorrotoa gaindituz; hau da, *euskal gizarte osoarentzako ongizateko, aurrerapidezko eta askatasunetzko politika eta gizarte proiektua eskaintzen jarraitzekoa*.

Guizti horretarako –Euzko Alderdi Jeltzalearen historia osoan zehar bezalatsu–, gizartearekin bat izan behar da, bere beharrian, gabeziak eta aurreikusitako daitezkeen bilakara posibleak lehensomatu egin behar dira. Zehazki, Alderdiak *gizartearen aldakuntzarako tresna* izan behar du, hiritargoaren beraren baitatik ateratako gainontzeko ekinbideen urgazle eta lagunkide, ongizate eta aurrerapen maila handiagoa izango duen Herria eraiki asmoz. Horretarako nahitaezkoa da gizarte eta politika mailako aniztasuna eta etorkizuneko gizarte orotan izango den balizko konplexutasuna onartzea.

Zeren eta, lehenengo eta behin, Herria eraikitzeko prozesuan aintzindari izatea –eta hori da Euzko Alderdi Jeltzaleari dagokiona–, prozesu irekia izateaz gain, herri eta politika atxekipenezko gorabidean oinarritu behar baita demokrazia barruan,

Horrek aniztasuna onartu, errespetatu eta indartzea eskatzen du, gizartearen protagonismoa sustatuz eta alderdi eta gizartearen arteko iragazkortasunari bide emanez.

Lan hori doakigu Euzko Alderdi Jeltzalearen alderdikide guztioi, eta lan horretan konprometitzen gara.

Eta horretarakoxe burutzen dugu honako ponentzia hau, Herri eraikintza bidean Euzko Alderdi Jeltzalearen lankidetzat zernolakoa izango den argi eman eta zedarriztekoa.

METODOLOGIA

Dokumentu hau eratzeko erabili dugun metodologiak Euzko Alderdi Jeltzalearen ekintzapidea gauzatzen deneko oinarri-oinarrizko lau eremu edo hausnarketa-esparru jorratzen ditu:

1. EREMUA: Lehiatoki politikoa - 2000.a abiapuntu.
2. EREMUA: Euzko Alderdi Jeltzalearen presentzia Euskalerriko gizartean.
3. EREMUA: Euzko Alderdi Jeltzalearen baitarantz.
4. EREMUA: XXI. menderako proiektu abertzalea.

Eremuok aipatze hutsak ez du esan nahi gai guztiak horretan agortzen direnik, hau da, beste ponentzia batzuri edota eranskin gisara honi lotuta, alderdikideek bidezkotzat jotzen dituzten beste zenbait gai ere barnesartu ahal izango dira.

Hortaz, zentzu horretan, dokumentu irekia da.

Azkenik, hausnarketa eremuotako edukin eta jokabideen azalpenak adierazpen-teknika zehatz bati eusten dio, hain zuzen ere aurrerantzean eztabaidagai izan daitezkeen zenbait argudio-ihardunbide ahalik eta barbarik gutxien erabiliz lantzeko teknika.

1. EREMUA: Lehiatoki politikoa - 2000.a abiapuntu.

Euzko Alderdi Jeltzaleak, datozen urteetarako –eta 2000. urtea abiapuntutzat hartuz–, honako helburu eta gertakizun hauek burutzea aurreikusten du:

A) **Euskalerrria Baketzea.** ETA erakundearen indarkeria desagertzeaz batera gauzatuko da, indarkeria uztea “ezinbesteko baldintza”tzat jotzen dugula.

Hortaz, nahitaezkoa da Bloke demokratikoa delakoaren partaide diren alderdi politiko guztien hausnarketa bateratsu sakona, aipatutako helburu hori bere batera heldu eta ekintzapide berriak asmatu eta antolatzeko bide egokia izan dadin.

Zentzu horretan, bada, “elkarrizketa” emaitza onak ekar ditzakeen bidea da, betiere demokrazia zko printzipioei uko egin gabe eta txantaiak alde batera utzirik, baina baita ere esku zabaltasunez eta bide berriak urratuz. Euskal eta espainiar gizarteari irtenbide bakartzat aurkeztu behar bait zaio, bete-betean onar dezan.

Gogorkeriaren aldekoen zokoratzean eta hauen kontrako kontzientzia sakonaztean Bloke demokratikoak erakutsi duen elkartasunak sortarazitako baloreak onetsiaz, errealitatea dinamikoa, bizia dela gain hartzen dugu eta gure estrategia politikoaren arrakastaren zati bat behintzat egoera aldakorren ihardunbideak eskatzen duen malgutasunean datzala jotzen. Beraz, ezinbestekotzat jotzen dugu ahalbide berrien urraketa, NAEM deritzanaren barneango balizko indar-erionen aurrean ekintzapide egoki eta eraginkorrez lan egin ahal izateko, betiere indarkeria utzi eta erakunde demokratikoetan partehartzearen baldintzapean.

Testuinguru honetan, gure Herriaren bakeratze preziatu eta desiatu horrek arriskuak ere ekar liezazkiguke, helburuaren ederragatik buru egiteko prest aurkituko gaituzten eragozpenak. Lan hau aurrera eramateko, ezinbestekoa da indar demokratikoen batasuna eta ahalik eta kontsentsurik handiena, ezen,

egungo egoeran, aski kuraia eta ausardi behar bait dira indarkeriaren problemari traumarik gabeko irtenbidea emateko.

Azkenik, ihardunbide honek –zuhurtziaz, adoiz eta polizi ekintzez batera gauzatuz gero– indarkeriaren elkarrizketa bidezko amaiera ekarriko luke eta Herria bake bidera eramango.

Dena den, talde politiko guztien funtzionamendua artekarik gabe eta Ajuria Eneako Hitzarmenean oinarritua mantentzea iraunarazi eta aberastu behar den balorea da, eta dagoeneko lortutako balorea.

B) **Euskal gizartearen normalizazio, elkartasun, eratze eta garapena.** Hau da, euskal gizartearen diren eta ari diren eriztasun eta norabide desberdinen arteko topaguneak gehiaraztea.

Euzko Alderdi Jeltzalearen ikuspegitik, euskal gizartearen eratze eta elkartasunezko guneak bilatzea, Euskal Herri kontzientzia eta kultura nortasunaren garapenean sakontzen lagunduko duen politika berezia egitean datza, bere askatasun, aukera berdintasun eta ongizate maila altxatuz. Lan honetarako, behar-beharrezkoa dugu bazterretako taldeak gero eta gehiago barnesartzea eta gizartearen aniztasuna onartzea –gizarte moderno baten itzuriezinezko ezaugarri–. Honekin batera, elkargarri bihurtu behar dugu orain arte talde bartzuk hala ustez eta soil-soilcan eduki dituzten nortasun ezaugarrietan denok izan behar dugun partaidetza.

Egunean-eguncan handiagoa den herri oneritziaz Euzko Alderdi Jeltzaleak lideratu nahi duen mugimendu abertzale baten iharduna eta zentzua gizarte sektore diferenteetan barna murgiltzean datza, sektore horien babesari lortuz eta apendu agor eta jarrera maximalistak alde batera utziz.

Mugimendu abertzale horrek bere aniztasun, tolerantzia eta alderdikeriari eza bermatzen ditu. Azken batean, erizpide sozio-kultural askotako biztanle-goaren gero eta handiagoko gehiengoak onartuak izan daitezkeen nortasun ezaugarri jakinetan kide izatea eskaintzen dio gizarteari.

Amaitzeko, “bihotza”, “burua eta eraginkortasuna” lotzea da Euzko Alderdi Jeltzalearen eskaintza. Oinarri sendo eta bakarraren gainean eraikitako proiektu politikoa, “euskotasuna”ri hainbat ikuspegitatik begiratzen dioten pertsonen osatutako alderdia, sexu, erlijio, hizkuntza edo dena delakoagatik gerta daitezkeen diskriminazioak erabat eta zeharo baztertzen dituen alderdi politikoa eraiki nahi bait dugu.

C) **Euzkadiko mapa politikoaren berregituraketa.** Politika eta soziologia analisten artean –alderdi politikoetako buruen artean bezalatsu– akordio bat izango da ziurrasko, *Euskal Elkarte Autonomoaren mapa politikoan ematen den hautagai-eskaintzaren zatikapena gehiegizkotzat jotzearen gainean* hain zuzen ere. Hortaz, bakantze-prozesua garatu beharra eginkizun dagoenik ez du inortok ere ukatzen.

Euzko Alderdi Jeltzaleak, eritzi horrekin orohar bat etorri arren ere, bi ikuspegitatik aditzen du egoera hori.

Alde batetik, *egun badiren formazio politikoenganako begirune osoa.* Guz-

tiak bait dute beren historia, ihardunbidea eta hautesleen babesak –alde ideologiko nabaririk izan ala ez izan–.

Beste alde batetik, bakantze politikoen prozesuak, bai haseran eta bai amaieran, euskal hautesle eta hiritarrak gauzatzen dituelako *sinets beteak*, berak argitzen eta zehazten bait du hauteskunde maparen aldaketa oro.

Ikuspegi honetatik, bada, Euzko Alderdi Jeltzaleak ez du sigla batze hutsean oinarritutako politika berregituratze operazioenganako fede handirik –gertatzekoa gertatuta ere–.

Bestela baizik, mezu ideologiko bereiztu eta banakakoaren sendotasunaren aldeko apustua egiten du, hauteskunde maparen garbiketa gauzatuko duen egitamu formulazioaren irmotasunean, jaurtze erantzunkizun eta gobernu ihardunbidean kontrastaturiko eraginkortasunaren aldeko apustua.

Hortaz, Euzko Alderdi Jeltzalea, datozen urteotako bakantze eta garbitze politikoen prozesua –gertatu behar badu behintzat– hauteskudeetako emaitzen poderioz gauzatuko delakoan dago. Eta prozesu honek alderdi sendo finkoak eta gizartearekiko lotura eta harreman zindoak dauzkaten formazio politikoak sarituko ditu, dudarik gabe.

Lan horretan botako ditu izerdiak Euzko Alderdi Jeltzaleak. Ez da norbere aurpegia bestearen ispiluan ikusi gura duenaren politikarik egin nahi, eta, beraz, Euzko Alderdi Jeltzalearen politikak bere jatorrizko eta berezko proiektuari begiratuko dio une oro.

D) Euzkadiren subiranutasuna. Euzko Alderdi Jeltzalea, lehen bezala orain ere, Euskal Herriaren subiranutasun osoaren alde dago, hau da, bere autodefinizioaren pausokako burutzapenaren alde, lurralde batasun eta gure Herriaren indartze politiko, ekonomiko eta kulturala lortzeko bide legez. Honetan bait datza nazio eraikitza eta horretan iraun beharko bait du eusko abertzaletasunak aurre-aurreko urteetan.

Aipaturiko proiektu horren osagaien arabera, Euzko Alderdi Jeltzaleak lasai ere lasai ikusten ditu zenbait siglaren batzeak eta desbatzeak. Batzeok, noski, errespetatu egiten ditu Euzko Alderdi Jeltzaleak, baina ez du horietan parterik hartuko.

Zentzu honetan, kontutan hartzekoa da Euzko Alderdi Jeltzaleak eskaintzen duen proiektuaren banakakotasun, sendotasun eta berezitasuna, zeren Euzkadiren garapen osoaren alde lan egiteko prest dauden pertsonak baitaratzeko ahalmenean aniztasun-eragile aski barnessartzen bait du, betiere abertzaletasunaren esparruan.

Azkenik, beste alderdi batzuekiko “*lankidetzak*” politikari dagokionez –nahiz eta jakina den–, Euzko Alderdi Jeltzalea gizarte demokratiko batek bere dituen joko arauak errespetatzen dituen beste edozein formazio politikorekin akordioetara heltzeko prest dago oso-osoan, eta hori berriro ere aipatu beharrik ez dago.

Horrela, bada, ituneak maila desberdinetan eta zenbait helburu zehatz lortzeko burutzen ditu Alderdiak –parte bakoitzaren jarrera ideologikoei uko egin gabe–; ituneok, egonkortasun finkoa lortu duten gehiengoekin gauzatzen dira, betiere jaurtze gaitasuna eta egitamu parekotasuna kontutan hartuaz.

Ez dago, haatik, eskema honetan eta Euzko Alderdi Jeltzalearen ikuspegian beste

lankidetzak-lehentasunik Alderdiak bilatzen duen euskal hiritargoaren interes orokorra eta itundu daitezkeen programez besterik, planteamendu honekin bat datozen erabakiak une eta inguruabar orori egokiturik.

Zehatzago, eta datozen urteetan Gobernu Zentralaren (Gobernu Espainolaren) jaurgarritasuna garantizatzeko estatu mailako partiduekiko balizko lankidetzak-politikei dagokienean, badirudi estatuko partiduok aurreikusten duten “*beharrizan*” maila horrek eta Euzko Alderdi Jeltzalearekiko akordioaren intentsitateak gorantz joko dutela.

Zentzu honetan, eta goiko puntuetan ituneoi buruz emandako zehaztapideak baliozkotzat jotzen ditugula, zera adierazi behar dugu argi eta garbi: Euzko Alderdi Jeltzaleak negoziaketa eta akordiorako markatzen duen lekua eta bidea Gernikako Autonomi Estatutua dela, eta ez besterik. Beronen garatze, sendoketa eta Europa Batuaen bilakaeran aurreikus daitezkeen joeren arabera, Estatutuak barnessartzen dituen termino guztien sakontzea da topaketa eta akordioa posible egingo duen elkar-gune horrek sortuko duen emaitzarik oparoena, betiere marko horretan subiranutasun maila handiagoak lortzeko helburua ahaztu gabe.

Estatutuaren garapen eta sakontzea helburu duen hitzarmen oro gauzatu daiteke Euzko Alderdi Jeltzalearekin, baldin eta helburu horretan Estatutuak zehazten dituen aurreikuspenen betetazpena sartzen bada.

Hortaz, eginkizun horretatik adentzeak edota Estatutua desitxuratzeak, Euzko Alderdi Jeltzalearekiko akordio gaitik kanpo uzten du aurretiaz edozein hitzarmen eskatzaile.

Euzko Alderdi Jeltzalea eta loratuz doazen nazionalismoak.

Europako Estatuaren egungo egituraketak zenbait urrats eman behar izan ditu historian zehar; nazio eta herri diferenteak errege arteko ezkontza bidez batzea zela, armen bidezko konkistaz edota gatazkan murgildua zegoen nazio jakinarekin zerikusirik ez zuten potentzien arteko gerra ostetako itunez sortutako nazioak zirela, edota, arrazoiak arrazoi, nazio baten Estatuaren arteko banaketa zela, egituraketa bideak anitz eta anitz izan dira.

Prozesu horren emaitza zenbait Estatuaren eraiketa izan da, eta gehienak nazio bat baino gehiagor osatu dira. Alderantziz ere, nazio batzu bi edo hiru Estatuaren lurretan daude kokatuak. Espainiak eta Frantziak lehenengo kasuko ezaugarriak dituzte; Euzkadik, ostera, bigarrenarenak. Guzti hau laburbilduaz, European, Estaturik eraiki ez duten nazio multzo bat badenik ezin da inola ere ukatu.

Naziootako batzuk beren nortasun ezaugarriak edota beren buruen jabe izateko bokazioa galtzen-galtzen joan dira historian zehar, menpe daudeneko Estatuak erabat irensteraino. Beste batzuk, ordea, aldiari aldi indarrez, nazio gisa zor zaien eskubidea erreklamatu eta Herri gisa egituratzeko, elkartzeko eta beren bizitza zuzentzeko erak berei dagozkiela aldarrikatuz joan dira. Euzkadi ere, Arana Goiriren garaitik hona eta bere pentsamenduari esker, bere subiranutasuna izateko eskubidearen kontzientziak jabetzen ari da, beste edozein nazio bezalako eskubidearen kontzientziak. hain zuzen. Horrela, bada, Euzko Alderdi Jeltzalea izango da eskubide hori lortzeko lanetan jarriko den lehen tresna eta baliabide nagusi.

Une historiko honetan eta II. Mundu Gerratik ateratako mapa politikoaren ondoren, Europako Ekialdeko diktadura komunisten erorketak egunerarte ezkutuan gordea zegoen nazio arazoa desestaltzea ekarri du; horra, bada, Alemaniaren kasua; bi Estatutan artifizialki banatua izaki, autodeterminazio eskubidez baliatuz, arin ere arin jarri da batasun bidean; horra Baltikoko Errepublikak: Hitler eta Stalinen arteko Itunea zela medio, S.E.S.B.ek armaz anexionatu ondoren, bere lehengo subiranutasuna birreskuratu dute eta Estatu guztiek ontzat hartu; horra Kroaziako Herria, Serbiaren uztarria lepotik kentzeko borrokan; eta egoera berean dauden beste hainbat eta hainbat herri...

Egoera istilutsu honek plaza erdira ekarri du nazionalitateen (Estaturik gabeko nazioen) arazoa, nahiz eta batzuentzat aspaldi bateko "burgeskaria" eta bestetzurenzat berezkoa omen den ezin aldatuzko batasun sakratuaren kontra dagoen zerbait izan. Era honetan, bada, eskubideen aldarrikapen hori ez da subiranutasun borondatea indartsuen agertu den nazionalitateetan bakarrik gertatu; badira beste batzu lehenago beren nazionalismoak benetazko ahalbide gutxi zuelakotan zeuden arren ere orain beren askatasunaren alde gogor eta tinko azaltzen direnak. Kontuak jota, bizi dugun unean indar-indarrean dago abertzaletasuna eta honi atxekirik dagoen berezko herriez eraikitako Europar batasuna. Lozorroan bizi izan diren nazionalismoek beren burua erakusten dute eta ideia honen alde betidanik borrokan izan direnekin elkartzen dira.

Euzko Alderdi Jeltzalea Euskal Herriaren subiranutasun osoari jazarri zaio betidanik. Zentzu honetan, 1990eko Otsailaren 15ean Euzko Legebiltzarrak eman zuen ebazpenari atxeki zizaion eta haren alde jarri zen: Euskal Herriaren Autodeterminazio Eskubidea aldarrikatu zen egun hartan; baita Parlamentuak eskubide hori erabilteko ahalmenaren arabera, beste edozein erabaki mota ere. Horregatik, Euzko Alderdi Jeltzaleak aukeratu duen bideak, bereari eusten dio, gainerako herrialde eta egoera jakinetan egiten dena kontutan hartu gabe.

Euzko Alderdi Jeltzaleak begi onez hartzen du europar herriem Autodeterminazio Eskubideen onarpena indartzuz joatea European; baita indarkeriaren erabilera eta Nazioen arteko gatazkak, gutxiengoaren artekoak edota gutxiengoak bere egitura politikoaren menpean, beren borondatez kontra, eduki gura dituen Estatu bakoiko istiluak bideratzeko armada estatalen mutursartzea gaitzetsi eta arbuizatzea ere.

Euzko Alderdi Jeltzaleak bere esku dagoen laguntza eskainiko du aipatutako Autodeterminazio Eskubidea gura duen edozein herri demokratikoki erabili ahal izan dezan, bai zuzenean, bai Nazioarteko den aldetik, hartan eragiten. Zentzu honetan, partidu abertzaleei bere esperientzia eta eskua luzatuz.

Euzko Alderdi Jeltzaleak, dokumentu honen ikuspegi hurbil modura aurkeztu dugun 2000. zorioko urte horretan, Europa bateratuaren itxuratzea ikusiko dugulakoan gara, Nazio askeak eta berdintasunean funtsa dutenak osatuko dutelakoan, adiskidetasunez gainera.

Euzko Alderdi Jeltzalea eta Europa.

"Hil ala biziko egunak Europarentzat" zioen Landaburuko Jabierrek 1956an *La Causa del Pueblo Vasco*-n; hitzok gure egin ditzakegu gaur. 1993aren atarian eta

Akta Bakarra indarrean sartzearekin, S.E.S.B.-ren erorketa eta gaurdaino menperatuta egon diren herri ugariaren independentziara etorrerarekin, azken fincan, europar egoera berriaren aurrean, Euzko Alderdi Jeltzaleak erronka horri gogo biziz eta etorkizunari begira egin nahi dio aurre.

Europa, betidanik izan da Euzko Alderdi Jeltzalearen abiapuntu; horrela, bada, merkatu bakarria antolatzeko kontzeptu ekonomista gainditu ostean, benetako unitate politikoa osatzearen alde egin du apustu, hitzaren zentzurik zabalenean. Baina, Euzko Alderdi Jeltzaleak ez du inoiz esan europar unitateak bizimodu berdina ekarriko digunik denoi eta herria herri egiten duten izena eta izana ezereztuko direnik; ezta nazionalitate aniztun estatu jakinen (beren buruak naziotzat dauzkaten arren) elkar-keta bortxatua denik ere, bai haatik Europear inguru aberatsa osatzen duten herri askeen batasuna izango dela, eskubide eta eginbeharrei doakien berdintasuna.

Bada jenderik, abertzale garen aldetiko asmo eta European jarri dugun itxaropenaren artean kontraesana ikusten duenik, Zail egiten zaie nazio bat (Zazpiak Bat) batu eta askatu eta Europako herriak batzearen artean bateratasuna dagoenik onartzea. Europar federalismoa Euzko Alderdi Jeltzaleak abertzaletasunari buruz duen aburua- ren osagarri da. Eite bizi, aske eta kontinente eta mundu mailako gaietan besteekin elkarlanean ihardutzen duen erakundetzat dauka nazioa. Askatasun eta elkarlana da hain zuzen ere nazio txikien irtenbidea. Herri txiki horiek, baina baita handiagoek ere, eguneroko bizitzak jartzen dizkien arazoei irtenbidea bilatuko badie, ez daukate beste biderik beren goiko erakundeetan murgiltzea baino. Arazo amankomunak erabakitzeke, nazio desberdinetako kide diren gizonen arteko lotura estuagoa eskatzen du bizitzak. Eta horrek, bere aldetik, nazioaren gaindi dagoen aginte politikoaren beharra dakar eta erakunde txikiagoek borondatez bere subiranutasunaren alde baten luzatzea.

Europa beharrezko da, haren aurkakoak gura ala ez gura. Oraindik orain nahiko- tasun "nazionala"-rekin amets egiten duten Estatuetakoa herritar batzuk dira Europa- ren kontra ateratzen direnak. Gaurko egoerak, egitura politiko, ekonomiko eta sozia- lak errotik aldatzea eskatzen du. Beharrezko eraberritze hori ezin liteke burutu egun- go Estatuaren batasunaren ikuspuntutik. Nazio errealean (Estatu eta Estaturik gabeko herrien) federazioa baino ez da izango aldaketa tinko eta iraunkor bihurtzeko gauza.

Europa honetan ezin izango dio inork ukatu lekua gure Herriari. Egungo Estatu hitzaren esanahia gaindi dadinean, Europak berezko eta bidezko oinarriak ezar ditzan- nean, orduan, eta orduan bakarrik edukiko dugu egitura egokia, non laguntzeko prest eta erosoago egongo garen, herri garen aldetik daukagun benetako asmoa eskura dezagun, hau da, askeak izan Europako gainerako herriekin bat.

Euzko Alderdi Jeltzaleak, Europeanzko bide hori zabaltzearen gainean eman dituen zertzeladek, eginkizun bikoitza daukate: batetik, hurbileko etorkizunean euro- par herri bezala bere bizia eta bilakaera bermatuko dituen proiektuaren jakinaren gai- nean jarri euskaldunak, European bere subiranutasun oso eta benetazkoa eskuratzeko biderik egokiena zein den adieraziz; bestetik, Estatu baruan zein kanpoan, Herrien Europa demokratiko eta askea lortzeko ekinak egiten ari eta bide demokratikoak aintzat hartzen dituzten partidu edo talde guztiekin elkarlanean aritu.

2. EREMUA: Euzko Alderdi Jeltzalearen presentzia euskal gizartean

Azterlan desberdinak laburbiltzen dituen txostenean, hots, "Euzkadiren Etorkizunerako Ikuspegi Berriak" delakoan jasotako datoen urteotako egoeraren ezaugarriei jaramon eginez, euskal gizartearen gurdian ibili ahal izateko ekintza eta eredu berriak itxuratzeke erronka onartu du Euzko Alderdi Jeltzaleak.

Ikuspuntu horretatik, bada, ondo ederto daki Euzko Alderdi Jeltzaleak zer egin behar duen, ezen, ihardunbide alderatuak baitira. Honela laburbilduko genituzke:

- Euskera eta gure kultura propioa bultzatzeko orduan arreta berezia jarri.
- Herriaren edozein xedetan, ahalik eta jende gehienaren -herritar ororen- partehartzea lortu.
- Menperatu nahia eta bakarrean aritzeko usteak baztertu.
- Azpi jaurkeriak erabat uxatu.
- Euskal gizartean loratzen diren balore positibo eta ideia berrietara zabaldu.
- Alderdia eta euskal gizartearen arteko iragazkortasunaren alde egin.
- Euskal biztanleria biltzeko herrialdekako prozesu eta ekinbideei laguntza eskaini, bereganatzen dituzten agintaritza eta kontzeptu, ideia, jarrera eta pentsakerek duintasuna eta berdintasunaren alde egiten duten bitartean.

Azken batean, Euzko Alderdi Jeltzalea, ezinegonak eta nahiak bereganatu eta, gizartean murgiltzen da bere balizko eta egungo boterea indarberritu eta bideratu asmoz; bizi izandako esperientziez baliatu eta haietatik ikasteko borondatez; gizartearen bihozkaririk latzenak ere somatu nahiean.

Ezen horrela bakarrik gehitu bait liteke egitamu politiko batetan -begirunea kontutan hartzen duena eta ahalik eta irekiena dena- hautesleen aldeko erantzuna eta

egotzi dakizkiokeen jaurtze erantzunkizunetan asmatzea. Gizartearen esanetara dagoela dioen proiektuak harekin bat egiten duen heinean.

Bestetara izanez gero, eraginkortasuna aldika baino lortuko ez duen hauteskunde tresneria soilik bihurtuko da -hauteskundeak ospatu daitezenean-, egitura demokratikoa beren arabera itxuratuz eta hauteskundeetan abstentzioa bultzatuz.

Garaia garai, politika kontutan partehartzea eta elkarlaguntza eskainiz, euskal gizartea ilusioz betetzeko ordua iritsi da hain baten.

Komunikazioa, iragazkortasuna eta jarrera irekia erakutsiz; galbidekeria eta aparatukeria gaitzetsiz; historiak egotzi dizkigun baloreak suspertu, sakonean abertzale mugimenduekin lotuta doazenak: norbanako eta herri mailako zintzotasuna.

Mezu egiazalea beti aurrean; demokraziaren lorpenaren kostua gizarteari erakutsiz; gaiztakeriaren mamua urrundu eta herritarrak konfidantzaz jabetu eta sisteman parte hartzen bultzatuko dituen

partidu politikoen iharduera legezkatu eta goraiatu, horretarako benetazko eta ageriko finantzaketa aldarrikatuz.

Azken finean, hala Euzko Alderdi Jeltzalearen barruan nola horren gizartearekiko harremanetan, ihardunbide demokratikoak indartu, betiere Euzkadiren gurariak Euzko Alderdi Jeltzalearen asmoen aurretik joango direla, inoiz bat etorriko ez balira bederen.

Erronka horri aurre egiteko gauza den partidurik egotekotan -Euzkadin ari direnetatik alegia- Euzko Alderdi Jeltzalea egoera ezin hobean dagoela esan behar. Urte asko daramatza euskal gizartean sartuta -esperientzia mardula ere aldeko- eta horretatik ez da erokeria garaile aterako garelako pentsatzea.

3. EREMUA: Euzko Alderdi Jeltzatearen baitarantz

Partidu batek –edozein dela ere– arlo eta eremu ugari atondu behar ditu. Horrez-keron, Euzko Alderdi Jeltzalea ez da salbuespen. Are gutxiago une honetan, gure ingurua eta gizartea errotik aldatuko direnean.

Gizartearen eta politika-politikoen arteko dibortzioari, inguru jakinetan partidu politiko “*usaina*” darion edozeri muzin egiten zaiola esan dezakegun honetan.

Beraz, politikaren “*presentzia*”-k gizartean ematen duen irudia seriozki gutxietsita dagoela esan daiteke.

Hori dela eta, eguneroko bizitzan inposatu behar diren politikoen eginkizun eta *jarrerak* hausnartu eta aztertzeko ordua iritsi da.

Euzko Alderdi Jeltzaleak, berari dagokionean, Herri hau askeago, berdino eta garapen eta ongizate maila handiagorantz zuzentzeko erantzunkizuna onartu du.

Neurri honetako proiektu batek, arrakasta izango bada, *une horretako gizartearen benetazko laguntza* du beharrezko.

Horrek gizartean konfidantza sustraitu dela esan nahi izango du, Herria herri egiteko proiektuan elkarlaguntza garatu dela, eginkizun politiko *sinesgarritasuna* lortzen hasia dela.

Euzko Alderdi Jeltzaleak, hala partidu den aldetik nola jaurtzen dituen erakunde-
en bitartekaritza esker, gizartean *murgildu* behar du, haren beharrian, ezinegon eta arazoak ikertu, azken finean harekin kide.

Horregatik, Alderdi den aldetik, *jarrera jakinak* sakondu eta garatzea eskatzen dio bere buruari:

- *jarrera irekia*, gizarte osora zabalduz eta iraunkor mantenduz.
- *errespetua* aniztasunari, elkarrizketa eta aburu batasunabultzatuz.
- *eskuartze* jarrera, herriaren ardatz diren ekinbide positiboetan parte hartuz.

- *sentsibilitate* jarrera, gizartea ezagutu eta sentitzeko ahalmena indartuz.
- *harmenezko* jarrera, errealitatea onartu eta entzuteko gaitasun modura.

Eta hori zer dela eta? Azken finean, hori delako *presentzia*.

Presentzia bikoitz hori izendatu ditugun jarreretan oinarrituz, Alderdi eta gizarte-
aren arteko *KONFIDANTZA* giroa sortu behar da.

Bizitza tokatuko zaigun sasoi, latza izango da benetan, zorrotza eta berebizi-
koa; horrela denik onartu ezik, nolatan burutuko dugu Herriaren proiektua? Ze herri-
tartasunarekin?

Erneko den konfidantza maila zelakoa, gure *JARRERA* eta *sinesgarritasuna*, eta ondorioz, aurrera eramateko gure ahalmena, halakoa.

Ezin eror gintezke jarrera *babestaileen* sarea, Gizartearen borondatezko *partehartze* lehiakorra behar da Herria herri izango bada. Den-denok harrapatzen gaitu proiektuak, beraz, erantzunkizuna ere ororena da, horretan buru-belarri sartua dagoen gizartearena eta Herriaren etorkizunean fede duen gizartearena.

Berreskura dezagun konfidantza eta partehartzea lortuko dugu; hala ez bada, usteak ustel.

Baina arazoa, zera da: itxuraldatuz doan gizarte horren aurrean honako edo halako erabaki eta aukerari heldu ostean, garrantzitsua da Euzko Alderdi Jeltzalearen barne planteamenduak hausnartzea eta beharrezko balitz, egunerakotzea, une xuxen-xuxenean ekin diezaion eta gura den norabidera zuzen daitezten, artekarik gabe eta homogeneoki.

Alderdi barruko ekinbideek honako bide hauek urratu ditzakete:

- A) Euzko Alderdi Jeltzalea, erakunde politiko den aldetik.
- B) Euzko Alderdi Jeltzalea bere antolaketan.
- C) Euzko Alderdi Jeltzalea eta bere antolaketa-kultura.
- D) Euzko Alderdi Jeltzalea eta gazteria.

A) Euzko Alderdi Jeltzalea, erakunde politiko den aldetik.

Partiduenganako mesprezuaren errudun, gutxi edo asko, partidu politiko guztiak gara.

Horren ondorioz, gizarteak gero eta gutxiago sinesten du politikan eta partehartzean, noski, lehen baino murriztagoa da.

Araza hauek hausnartu eta batipat, politika ekintzek inoiz edo behin barneratzen dituzten atal negatiboak uxatzea da Euzko Alderdi Jeltzaleak gainditu behar duena ezertan hasi baino lehen.

Ikuspuntu horretatik, bada, Euzko Alderdi Jeltzaleak, jendea erakartzeko erabili ohi izan duen bidea utzi –militantzia zorrotza eta alderdiaren karneta eskura izan– eta partehartze aukera berriak zabaldu alderdiaren eginkizunetarako.

Euzko Alderdi Jeltzaleari botua ematen dion jende kopuru/alderdikide arteko pisuak, nabarmen nabarmen egiten du lehenengoan aldera.

Horrek esan gura du ekintzaile-ekintzaile ez den jende asko eta askok hauteskunderetan Euzko Alderdi Jeltzaleari ematen diola botua –zer edo zerk bultzatuta– fideltasunez.

Euzko Alderdi Jeltzalearen jarraitzaile izan –egunean egunean kopurua handituz doa– baina ekintzaile ez den herritar kopuruaren beharrei erantzuneko dien partehartze modu berriak asmatu eta irudikatu behar ditugu, bada, egunen batean alderdikide izan litezkeela ahanzi gabe. Aldi berean, alderdikide izateko erabakia hartuko duen jende kopurua handitzen ahalegindu behar dugu.

Euzko Alderdi Jeltzaleak herritar mota horren beharra du, itxuraldatuz doan gizartearen joerak eskeini ahal izateko, bizimodu era anitzak abiapuntu.

Horrela, bada, Euzko Alderdi Jeltzaleak badauka zereginik eta erronkarik hurrengo urteetarako.

Guzti horrekin batera, alderdiaren "*corpus*"-ak oso-osoan –Euzko Alderdi Jeltzalearen ardatza, hura barik ez litzatekeelako posible alderdiaren izatea– Euzko Alderdi Jeltzalearen jarrerak bere egin beharko ditu, gainera datorkigun sasoiari euskal gizartearen gauzatu dituen jarrerak, eta dokumentu honetako 2. Eremua atalean garatzen genituenak.

Laburbilduz: gizartearen arazoak eta haren aurrean, jarrera irekia, zintzotasuna, lan lehiatsua eta eraginkortasuna.

B) Euzko Alderdi Jeltzalea, bere antolaketan.

Zestoako Biltzarra ezkerroztik, Euzko Alderdi Jeltzaleak zenbait barne antolaketan gaietan aldaketak ezarri ditu, ekintzaileen eta orokorrean gizartearen egonezinen aurrean, eraginkortasun eta kidetasun handiagoa lortzearen alde.

Gaur –igarotako denbora lekuko– nahikoa esperientzia dugu lepoan zenbait hantzasartze eta kausitze balio-neurtzeko.

Euzkadi Buru Batzarraren egitura berriarekin eraginkortasunean irabazi dugula begitantzen zaigu.

Kontuak kontu, Euzkadi Buru Batzarraren norabide berriak badauka besterik: Uriburu eta Eskualdeko Batzarren ekinbide eta jokabidea sakon aztertu beharra dago; izan ere, bide horretan duten eginbeharra eta beren funtzioak noraino heltzen direnaren aurrean nolabaiteko segurtasunik eza agertu bai baitute.

Zentzu honetan, bada, Euzkadi Buru Batzar eta Eskualdeko Batzarren arteko partehartze bateratua, elkarlaguntza eta harremanak finkatu beharko lirateke; baita Eskualdeko Batzar eta Uriburu Batzarren artean ere, Euzko Alderdi Jeltzalearen politika orokorra eta nondik norakoan den-denak "*busti*" daitezten.

Antzeman dugun beste akatsetariko bat, oraingo honetan EBB-Eskualdeko Batzar harremanekin zerkusirik ez duena baina bai haatik EBB-Eskualdeko Batzar-Uriburu Batzar harremanekin, zera da: eskualde eta herri mailan antolatzen diren aldikako batzarretara hurbiltzen den jende kopuru txiki samarra.

Irtenbideren bat aurki diezaiogegu horregaitio jokabide horri: alde batetik, Batzarretarako deiak gutxitu eta informazio politiko edo erakundearen kudeaketari buruzkoak gehitu, zeintzutan Euzko Alderdi Jeltzaleak baduen erantzunkizunik; baita ekintzaileei informazioa erretzu, Uriburu Batzarren arteko dinamizazio, harreman eta koordinaketa esperientziak elkartrukatu eta ekintzaileen esku utziko diren eginbeharrak zehaztu eta nori zer eman erabaki eta enparauak ere.

C) Euzko Alderdi Jeltzalea eta bere antolaketa kultura

Zuzentzen den gizartearen aurrean eta haren esanetara dagoen erakunde politiko bat sendoa eta mardula da, adierazpen askatasuna eta planteamendu aniztasuna lortzeko ezinbesteko eskakizun modura, azalean mezu eta jarrera bateratuak eskaintzen dituen neurrian eta barnean guztiek onartu eta aintzat hartutako bide demokratikoak erabiltzen dituen heinean.

Horregatik, etengabe hausnartu eta norberaren burua kritikatzeko ahalmena, jarrerenganako leialtasuna eta alderdikideen artean askotariko eritziak daudela onartzea baina betiere gehiengoaren alde egitea, bateragarri dira eta izango aurrerantzean Euzko Alderdi Jeltzalearen barne antolakuntzaren nondik norakoarekin, eta ekintzaileen ustezko asmoekin.

Alderdikide orok eta bakoitzak onartu, oneritzi eta garatu dituen baloreok erakunde baten norabidea aberasten dute. Horretarako, alderdiko jende xumea gauza guztien jakinaren gainean jarri behar da, ez zaio ezer ezkutatu behar, ezen horrek, erabakiak hartzeko orduan horien partehartzea ekarriko baitu.

Ikuspuntu honetatik, balore horiek bultzatu eta garatzearan alde apustu egin du Euzko Alderdi Jeltzaleak.

Kide guztiak bat etorritz gero, galduta legoke edozein partidurik; biziko bada, askotariko eritzi eta eztabaidetatik ikasi behar.

D) Euzko Alderdi Jeltzalea eta gazteria.

Euskal herria murgilduta dagoen arazoaren aurrean euskal gazteriak erakusten duen ezinegona kanporatuko duen partehartzea eta kontzientziaketari begira, kome-nigarria litzateke gure Alderdiaren gazte erakundeari, Euzko Gaztediri, ohituraz eta taiuz dagokion rol-a balio-neurtu eta indarberritzea.

Azken aldion EGI gazteriarantz irtenbide erakargarri aurkezteko eta gazte erakundeetako indartsuena bilakatzeko ahaleginak sendotu diren arren; nahiz eta dagozkien Alderdiko erakundeekin behar bezala antolatu eta hezur-mamitutako erakunde baten beharra aldarrikatu den, aurrerantzean, Alderdi eta EGI-ren koordinaketa bide eraginkorrago eta argiagoan ezarpenean jarri behar ditugu begiak.

Gaurko ingurugiro sozio-politikoan Soldaduzkaren arazoak eta arautzearen aurrean jendearen, batez ere gazteen artean (zuzenean erasotzen dituelako) mamitu den sentsibilitatea nolana hikoia ez dela eta, Euzko Alderdi Jeltzaleak horri buruzko gora-

beherak aztertuko dituen batzordea sortzea komenigarri ikusten du, Alderdikide eta EGI-ko kideek osatuko dutena, alegia.

Aldi berean, gudazalekeriari kontra egitea helburutzat hartuta, EGI-k erakunde eta elkarte ez-politikoekiko harremanak eta elkarlaguntza bultzatu behar ditu. Baina ez hori bakarrik, gaurko militar eredua zalantzatan jartzen duten legezko ekintzen defentsa publikoa bultzatzearen erantzunkizuna ere, bere gain dago.

EGI-ren funtzionamendua zuzena izateko zera eskatzen da: taiuz doakion eginbeharra zehaztea eta egitura maila guztiek bere kabuz lana egiteko ahalmena, lanari ekingo dioten kideak gehitzea eta lana bera ere ugaritzea eta Alderdiak EGI-ren funtzionamenduaren balizko gehiegizko askatasuna begi onez ikusiko ez balu ere, askatasunori onartzea.

Gaur, Alderdi eta EGI-ren arteko bateratasun maila goi samar dagoen honetan, elkarrenganako konfidantzan oinarrituta egin behar dugu aurrera. Geroari begira, elkarrekiko jarrerak EGI-kideen partehartzea handituko dute Alderdian; baita oraindik EGI-ren barruan antolatu gabe daudenena ere. Bakoitzak bere bideari jarrai diezaion, konfidantza eta errespetuaren garrantzia gero eta handiagoa beharko du, inoizkotan Herria arduraz eta jarraipena bermatuz gazteok erantzunkizun handiko postuak betetzeko erreztasunak eduki ditzaten.

Alderdiak bere azpiegitura eta hitzegiteko ahalmena jarri beharko ditu haien esanetara, EGI-ko gazteek, beren pareko erakundeekin, Euskalerritik kanpora ere harremanak gauzatu ditzaten; europar Elkartearen burutuko diren ekintzetan, formazio eta gazte elkarketa-bideei dagokienean, atzera gera ez dadin.

4. EREMUA: XXI. menderako proiektu abertzalea

Sasoi latza bizi dugu, istiluz josia. Abertzaletasuna, marxistek kapitalismoa eta XIX. mendeko arazotzat bazuten ere, XX. gizaldiko sozialismo errealaena (gelditzen den hondarrena) dela argitu da, eta ziurtatu dezakegu XXI. mendeko arazoa edo buru-haustea izango dena.

Eta gaurdaino, ematen diren eritzi, azterketa eta mezuak, edo abertzale mugimenduak "deabrutu" egiten dituzte, orainarteko eta aurrerantzeango gaitz guztien iturburu direlakoan, edo goraiatu ezin gehiagoan. Ez buruan, ez hanka-pean.

Abertzaletasuna xumetasuna da, demokrazia esan gura du eta denon indarrak beharrezko.

Askatasunean eta demokraziak aginduta leku jakin batean bizitzea aukeratu duten herritarren xumetasuna eta demokrazia, harekin bat datozen historia eta kultura amankomunaren babespean, beren patu eta bizitzen jabe eta aintzindari izatea gogoko duten herritarrena.

Geureak eta bi egin behar hori lortzeko, ezen bai baitakigu prozesua dinamikoa dena eta bere aldetik, daukanak daukana jarri beharko duena.

Hortan datza, hain zuzen ere, *abertzale pentsamoldearen xumetasuna eta demokraziaren susterrekotasuna*, historian zehar hainbeste eta hainbeste istilu biztu dituen, horretan joan zaizkigun bizitza eta ilusioak baztertu gabe.

Horixe baino ez, ez gehiago ez gutxiago.

Batetik, printzipio xume horien ezarpena eragotzi asmoz istilu latzak piztu direnean; bestetik, zenbat eta zenbat gauzari uko egin behar izan zaionean, hainbeste odol isuri eta beste horrenbeste ilusio haizeak eraman dituen.

Guzti horrek egiten du nekeza eta astuna bidea, baina erakargarri eta liluragarrialdi berean.

Hori da Euzko Alderdi Jeltzalearentzat abertzaletasuna: Euzkadi du bere aberri eta kokaleku; euskaldunak (den-denak), proiektuaren protagonista.

Hortik aurrera, esperientzia eta bide desberdinei darraien proiektuak, adibide alderatuak orokortasunean har daitezke; komunitatea komunitate eta giza-taldea giza-talde, norbera norberaren bideari lotzen zaio.

Horregaitik nazioa itxuratze edozein prozesu eta egitasmo, bakarra eta berez baliagarria da. Bakoitzak gorabeherak biziko ditu, bere bereak; baita porrot eta arrakasta aldiak ere.

Eta horregaitik, Euzko Alderdi Jeltzaleak aurkezten duen abertzale proiektua, proiektu den aldetik, bere berea da eta ez beste inorena.

Ezaugarriak badu, oinarri demokratikoa da hori, euskal herritarrek adierazitako borondatean errotua; baita gaiak berraztertu eta euskal gizartearen berezko bilakaerari egokitze ahalmena ere.

Ikuspuntu honetatik, bada, Euzko Alderdi Jeltzaleak aurkezten duen abertzale proiektua aldatuz eta mamituz doa, Lehen azaldutako printzipio "*xume eta demokratikoak*" lortzeko helburuan doa mamitzen; herritarren beharizanei egokitu eta ematen duen mezua behin eta berriro berrikustea eskatzen duelako, aldatzen.

Horren testigantza ugari ezagutzen dugu; nolana ere, lekukotzarik sendoena, Euzko Alderdi Jeltzalea bezalako erakunde politiko baten 100 urte inguruko bizia.

Zentzu horretan, Euzko Alderdi Jeltzalea, bidean bizitzea egokitu zaizkion aldie-tan, kasuan kasu, ondo baino hobeto egokitu da guztietara.

Une garrantzitsu bi nabarmentzea komeni da. "*Arriagako senak*", euskal gizartearen ikuspuntu aniztasuna berrikusi, zuzendu eta finkatzea ekarriko dio Euzko Alderdi Jeltzaleari; "*Victoria Eugeniako senak*", ordea, Euzko Alderdi Jeltzalearen mezu abertzalea nazioarte eta europar mugan loratuz hasiak diren unitate politiko berri-ci eta ekonomia eta giza mailan haien baitaratze prozesuei egokitzea.

Batzar honetan, iritsi da nazio eraikitze egitasmoan buru-belarri sartzeko ordua, abertzaletasunaren inguruko eraberritzearen gaineko pentsamolde eta ilusio berriak eskaini eta berplanteatuz, eta, zergatik ez? gure izatea zertan izan den hausnartu eta balio-neurtu; bide batez, nazioaren eraketa prozesuari bultzakada eman ahal izan die-zaiogun honako printzipio-helburuak errespetatu eta jagon: *aberri-lurraldea batetik, eta bestetik, geure bizitza eta protagonismoa-patua, guk geuk, euskaldunok, antolatatu.*

Hausnarketa horrek eta berriro balio-neurtzeak, honako gaiak barnera ditzake:

- Euzko Alderdi Jeltzaleak, nazio eraketaren ardatz eta biltzaile, euskara dela uste du.
- Euzko Alderdi Jeltzaleak azpimarratzen du, euskarak -argi eta garbi baldintza berdinetan ez dago eta- eratze-programa positiboak eskatzen dituela indartu eta garatuko bada, eguneroko bizitzan presentzia sendoa bermatuz apurka-apurka.
- Euzko Alderdi Jeltzaleak uste du, gizarte elebiduna finkatzearen prozesua, elkar ulertze, baztertze negatiborik gabe eta inposaketa ezabatzean datzala.

Azken finean, belaunaldi batean bukatuko ez den lana, eta geureari dagokiona gitea doakio.

- Euzko Alderdi Jeltzaleak ulertzen du gure Herriaren sozio-lingustiko egoera lekuan leku desberdina dela ohartuz, euskalduntze plangintzak egunecan egunecan egoeraren arabera gogortzearen alde jarri beharko duela eta belaunaldi berrien ikasketa eta erabilera eskariak bete beharko dituela ere. Gizartearen gurarici erantzuna eman eta sektore politiko jakinek erasoan babes modura hartzen duten mezua baliogabetezko biderik zuzenena da agian. Kontuak kontu, abertzale ororen helburu, ahalik eta eperik laburren, bere hizkuntza, euskara, ikastea eta eguneroko bizitzan erabiltzea beharko luke.
- Euzko Alderdi Jeltzaleak adierazten du indarkeria, euskal gizarteko edonor astintzen duen gaitza dela eta abertzaletasunaren garapenari kalte handia egi-ten diola; indarkeria gaingitzea, horrekiko guztion erantzunkizunean dago, dogmatismoak ezabatzean, esperantza eta ustantzak egi bidetik zuzentzean, gizartea, politika ezezik beste zerbaite ere badela ulertzeko gaitasunean.

Abertzaletasunaren izaera eta nortasunak, euskal gizarteko politika eta gizarte beratasuna onartu ezezik, beste urrats bat emanez, abertzaletasun mota desberdinak egon daudela ulertu eta baitaratu, herri eta aberri baten identifikazioa adierazteko modu bateratuak baifiran.

Abertzale proiektua orobiltzen zuen kanpoko etsaiarenganako erreferentziak, eus-kal gizarte bateratu eta askotarikoa itxuratzeko barne ahaleginari utzi behar dio lekua.

Abertzaletasuna -Euzko Alderdi Jeltzaleak aurkezten duen bezalako- aniztasun eta desberdintasunetik edaten eta elikatzen da. Desberdintasunak dira hain justu proiektu politikoak aberasten dituztenak.

Gizarte bat -euskalduna bada berez eta nazioz- sentimendu eta arrazionaltasuna, eraginkortasuna eta justizia, berdintasuna eta askatasuna bezalako jokabideetan oinarritzen da. Guzti horiek berenagatzearen alde jokatu du Euzko Alderdi Jeltzaleak, horietan fede du eta horiek ordezkatzeko xedea agertzen.

Dena den, baieztapen horiek ematen ditugun zintzotasun eta irmotasun berberaz aditu behar dugu Euzko Alderdi Jeltzaleak sinesten duen hiritar euskaldunaren aintzindaritza demokratikoa, bere bizitza eta patuaren, hau da, garapena eta ongizatea eskuratzeko edozein gizataldek mahai gainean dituen tresna, neurri eta boterearen jaun eta jabe den euskaldun hiritarrarena. Botere, tresna eta guzti horri, egun bizi dugun ingurune politikoan, *Gernikako Estatutua deritzogu oso-osoan, aurreikusitako gutzia bete arteraino*, eta Estatutuak ezartzen duen Xedapen Gehigarria azpimarratuz: historiak egotzita egokitu lekizkikeen eskubideei uko ez egitea, erakunde politi-koek azaldu, aurkeztu eta defendatu zuten, Euskalerriko biztanleriaren gehiengoak ulertu eta onartu zuenez.

Dokumentu honetan mamitu ditugun planteamendu politikoez ez dute halabeharrez Euzko Alderdi Jeltzalearen dotrina aldatzea eskatzen, batez ere 1977an aldi historiko berria urratu zuenetik. Alderdiaren izateko arrazoiak arau horietako batzuren azalpenean eta zabaltzean datza, bizi izan dugun esperientziaren arabera eta aldaketa historikoak eta sortu daitezkeen egoera berriek hala eskatzen ditugulako.